

BEUSKARAREN BERRIPAPER A

HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

Euskarazko herri-prentsak 250.000 irakurle ditu

Euskaraz argitaratzen den prentsa lokala haziz doa etengabe herrialde guztietan. Iazko abenduan elgoiBARREN astekaria argitaratu zen Elgoibarren. Nafarroako Garesen Murugarren jaio zen martxoan. Apirilak bi aldizkari ekarri ditu Bizkaian: Eraz Durangaldeko astekaria eta Gauzi ok au Markinan. Arabako Errioxako euskaltzale talde batek, azkenik, Ttiki-Ttaka aldizkaria plazaratu berri du.

Gehienek hainbat ezaugarri dituzte amankomunean: euskara hutsez idatziak, kultur elkarte bat dute atzean, dohainik banatzen dira, publizitatea erabiltzen dute finantzabide moduan, erakundeen dirulaguntza ere jaso ohi dute, zenbaitek egitura erdi-profesionala dute, eta autoedizioaz baliatzen dira, hau da, informatikaz.

Euskaraz idatzitako herri-prentsak 1988aren hondarretan

hartu zuen indarra, Arrasate Press astekariaren jaiotzarekin, bera izan baitzen aipaturiko ezaugarri horiek euskal prentsari ekarri zizkiona. Geroztik hogeita hamar aldizkari inguru jaio dira Euskal Herrian.

Dagoeneko laupabost inkesta soziologiko egin dira euskarazko herri-prentsari buruz (Euskadiko Kutxak, Deustuko Unibertsitateak, UNEDek eta Nekane Belokik, besteak beste, eginak). Azterketa hauen arabera, prentsa mota honek arrakasta handia lortu du eta sekulako aukerak ditu etorkizunean. Inkesten arabera, aldizkari hauetako ale bakoitza hiru lagunek irakurtzen omen dute. Beraz, gaur egun 81.560 ale argitaratzen badira, euskarazko herri-prentsak ia 250.000 irakurle ditu. Bi euskaldunetatik batek irakurtzen du euskarazko herri-prentsa.

HERRI-PRENTSAREN BILAKAERA



EGUNGO EGOERA ZENBAKITAN

MAIZTASUNA	Zenbat	Tirada
Astekariak	6	20.900
Hamabostekariak	5	18.700
Hilabetekariak	12	33.063
Gainontzekoak	12	8.900
Guztira	35	81.563

Iturria: José Félix Díaz de Tuesta

Komunikabideekiko ardura isladatzen duten bi ekintza hauek ere kontutan hartzekoak dira.

- Herri eta eskualdeetako prentsa Idatzia. Udako Euskal Unibertsitateak eratuta, Iruñean, uztailaren 26tik 30era bitartean. Arduraduna: Jesús Mari Zalakain. Tfnoa.: (94) 421 71 45.
- Herri-komunikabideei buruzko II. Ihardunaldiak, ARKOk (Arrasate Komunikabideak elkarte) antolatuta, Arrasaten, azaroaren 26an eta 27an. Arduraduna: José Félix Díaz de Tuesta Tfnoa.: (943) 79 09 00.



Patxi Altuna, euskararen laguna

Makina bat lagunek eman dituzte euskara ikasteko lehen urratsak Patxi Altuna, 65, josulagun azpeitiarraren Euskara, hire laguna metodoarekin. Beste batzuek, euskal aditzaren katramilak askatu nahaiari Aditz Batua? Baturakoa erabili zuten. Horrez gain, Patxi apailaturiko Mitxelena lan hautatuak garaiko libururik irakurrietarikoa izan zen.

Gazterik abiatu zen Xabierrera eta handik Urduña, Loiola, Oña, Salamanca eta

Innsbruckera, garaiko josulagun askoren bidetari jarraituz. Austriako hiri hartan abade egin zen 1961ean. Ordurako ondo sartuta zeukan euskararekiko kezka. Udetan bilerak egiten zituzten Loiolan euskara lantzeko. "Loiolako Eskolaren" (Ibiñagabeitia, Orixe, Zaitegi...) oihartzunak iritsi zitzaizkien eta inoiz Orixe ere joan zitzairen. "Zoragarria zen, baina harekin ez genekien nuen,

nun edo nola idatzi behar zen, aldiko modu diferentean idazten baitzuen. Mitxelena eman zigun segurtasun hori".



Patxi Altuna

Filosofian, Teologian eta Filologia Klasikoan lizentziatua, Etxepareren metrikaz egin zuen doktorego tesia. Aurten 30 urte egingo ditu irakaskuntzan. Euskal Testuak, Euskal Linguistika Diakronikoa eta Latina irakasten ditu Donostiako EUTGn eta Deustuan. 1981etik euskaltzain oso, Gramatika Batzordeko, Iker Saileko eta Euskara

Batuaren Batzordeko buru dugu.

Hiribarrenen Eskaldunak prestatzen duen bitartean, gogor ari da bere taldearekin 1994ko udazkenean Arantzazun euskara batua finkoagotzeko egingo den bilera gertatzen. "Atzera baino, aurrera egin dugula esango nuke. Horregatik euskararen etorkizuna orain hamabost urte baino begi urdinagoz ikusten dut".

Euskararen Aholku Batzordeak

Euskararen aldeko hizkuntza politikarako oinarritzko irizpideak aztertuko ditu Euskararen Aholku Batzordeak ekainean egingo duen osoko bilkuran. Ondorengo urteetan euskararen politikak nondik norakoa behar duen, lehentasunak non dauden eta herri administrazioen, nahiz herritarren ahaleginak norantz zuzendu beharko lirakeen erabakitzeko irizpideak landuko ditu batzordeak.

Hamar urte pasa dira 1982an Euskararen Legea onartu zenetik, badira hamar urte Euskararen politikarako oinarriak liburua batzordeak argitaratu zuela. Denboraldi hau igaro eta gero, halako pausaldi bat egin nahi izan du orain artean eginikoa begiratu, egungo egoera aztertu eta ondorengo urtetan egin beharrekoa aurrikusteko.

Gizartearen eraikuntzan, zeregin publikoan nahiz pribatuan, zer esana duten eragileei begira osatutako txostena da bileran aztertuko dena.

XXI. Udako Euskal Unibertsitatea.

Aurtengoa ere Iruñeko Larraona ikastetxean izango da, uztaillaren 19tik 31ra bitartean. Egitarau trinkoa eskaintzen du, hogeitik gora sailetan banatuta. Matrikula epea ekainaren 1etik 30era izango da. Zenbait udalek beka ematen dituzte UEUra doazen herritarrentzat. Argibide gehiagorako tfnoa.: (94) 421 71 45.

Dirulaguntzak euskal komunikabideetarako.

Nafarroako Gobernuaren Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak Nafarroan zabaltzen diren euskarazko komunikabideen artean dirulaguntzak emateko deialdia ireki du. Prentsak, irratiak eta telebistak eska ditzakete dirulaguntza hauek. Dirulaguntzak jasotzeko eskaerak abuztuaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira.

EIMAK. Eusko

Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak 134 milioi pezeta banatuko ditu aurten umeen euskarazko ikasmaterialek duten antzerako prezio eta kalitatean argitara daitezen. Diru horretatik 62 milioi euskarazko ikasliburuetarako emango dira, 46 milioi ikusentzunezkoetarako eta gainerako 26 milioiak hezkuntz softwarea egiteko.

Dirulaguntzak euskal liburuetarako.

Nafarroako Gobernuaren Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak emango ditu euskaraz sortzen diren literatur obretarako zein hizkuntza honetara itzuliko diren lanentzat. Nafarroan argitaratuak izan beharko dira 1992ko azaroaren 1etik 1993ko urriaren 31 bitartean. Eskariak aurkezteko epea azaroaren 15ean amaituko da.

Eusko Jaurlaritzaren Erakunde- Nortasunaren Eskuliburua

Eusko Jaurlaritzak bere Erakunde-Nortasunaren Eskuliburua sortu berri du. Lehendakaritzaren Idazkaritzaren zuzendaritzapean egin da eta dekretuz onartu da maiatzaren erdialdean.

Eskuliburu honen helburua Eusko Jaurlaritzaren nortasun-irudia finkatzea da, herritarrek Eusko Jaurlaritzaren mezu eta adierazpideak ikusiaz batera ezagut ditzaten. Hori lortzeko estilo argi eta bateratuan honako arlo hauek arautzen ditu: guztizko arauak, Eusko Jaurlaritzarena beste marka batzuekin batera agertzen denekoa, papertza, publizitatea, argitalpenak, ibilgailuak eta seinaleak. Eusko Jaurlaritzaren armarria, ikurrak eta letra motak ezin izango dira, bada, edozein modutan agertu, eskuliburu honek



kasuan kasurako arautzen duen modura baizik.

Erakunde-Nortasunaren Eskuliburuak kontutan hartzen ditu Euskal Autonomi Elkarteko hizkuntzak, euskara eta gaztelania alegia, eta bien erabilera modua finkatzen.

Euskararen garapena eta normalkuntza bultzatzeko asmoz, eta euskara gure nortasunaren erakusgarri nabariena eta behinena delako, lehentasunezko tratua izango du

eskuliburu honek ezarritako modu eta neurrian (letra moldeak, hurrenkera, jasotzailea euskalduna denean, langaia euskara denean,...). Era berean Euskal Autonomi Elkartetik kanpo egin beharreko agerraldietan lekuan-lekuko hizkuntzekin izan behar den begirunea azpimarratzen du.

Allande Boutin, Parisen jaiotako kazetari euskalduna France 3 telebista publikoaren France 3 Euskal Herri albistegi berrian hasi da lanean. Le Point, Le Monde eta TVEko Parisko korrespontsalian lan egin ostean ETBren Iparraldearen Orena zuzendu zuen.

Xipri Arbelbide, 58, apaiz, kazetari eta idazle heletarrak Wendworth Webster abade anglikanoaren Ipuinak lana prestatu eta argitaratu du Klasikoak sailean. Afrikan eta Euskal Herrian igaro ditu urte luzeak apaiz lanetan. Baionako Gure Irratian egiten du lan.

Isabelle Lichau, Frantziako Hezkuntza Ministeritzako ikuskatzailea Saran izan zen, beste batzuekin batera, orain hamar urte Iparraldeko irakaskuntza publikoan euskarazko eskolak bultzatu zituztenei egindako omenaldi ekitaldian.



EUSKARAREN BERRIPAPERA zure etxean doan jaso nahi baduzu edo ezagunen bati bidaltzea nahi, idatzi helbide honetara:

**Hizkuntza Politikarako
Idazkaritza Nagusia
Wellingtongo Dukea, 2
01011 Vitoria-Gasteiz
(Araba)**

Euskaraz
Gazteleraz

Izen-deiturak:.....

Helbidea:.....

Herria:.....

Kodea:.....

Lurralde:.....

Tel.:

Notitia Utriusque Vasconiae

Hauxe duzue Arnaud d'Oihénart idazle zuberotarraren obrarekin Eusko Legebiltzarrak egin duen argitalpena. Ricardo Cierbide irakasleak apailatua, beronek idatzi du sarrera. Ondoan Javier Gorosterratzuk espainolera egindako itzulpena dakar. Azkenik, Notitiaren 1656ko argitalpenaren edizio faksimila dator.



Galdezka

Konpentsazio mekanismoak

G Zein da HPINen jarduera helburuei dagokienez?

E Berdintasun eza zuzentzeko asmoz eta proposatzen dugun elebitasuna erdiesteko gogoz, euskal hizkuntza sustatzeko neurriak eta ekintza positiboak bultzatzen ditugu. Eta gure ustez, ezin uka daiteke gure herriko hizkuntzaren normalizazioak egoera ahulenean dagoen hizkuntzaren aldeko jarrera eskatzen duela.

Ezagun da herritar batzuek beste batzuek baino etekin handiagoa ateratzen dietela denok ordaintzen ditugun zergeri, baina, gehienek onartzen dute zenbaiten aldeko diskriminazio hori. Bestela esanda: administrazioak baditu konpentsazio mekanismoak, eta euskararekin ere erabili egiten ditu. Beraz, ezin da onartu mekanismo horiek euskarari egokitzean bakarrik egitea kritikak. Horregatik, erraz ulertuko duzue diskriminaziotzat jotzen den hori aitzakia hutsa dela.

M. Karmen Garmendia.
Hizkuntza Politikarako
Idazkari Nagusia

Bizkaian abokatuia ere euskaraz

Bizkaiko Abokatuen Bazkunak letratu lana euskaraz beteko duten adituak eskainiko dizkie nahi duten guztiei. Ekimen txalogarri hau "Abokatuia ere euskaraz" kanpainaren bidez plazaratu du. Triptikoak eta kartelak banatu ditu, herritarrak legearen aurrean ere euskara erabiltzera anima daitezten.

Jakina da auzitegira doan pertsona nahiko kezkatuta doala berez eta euskaraz egiteak bere kalterako izan litekeela uste izaten duela askotan, abokatu eta epaile gehienek ez dakite-eta euskara.

Arazo honen jakitun, Bizkaiko Abokatuen Bazkunak mezu hauek zabaldu ditu:

- Herritarrak justizi administrazioarekin ere euskaraz egiteko eskubidea dauka, ahoz zein idatziz.
- Edozein motatako egintza judicial

zein ezjudizial euskaraz izatea eska daiteke.

- Atxilotua izanda ere, euskaraz lagunduko duen abokatuia eska daiteke.

Ez da hor geratu Bizkaiko Abokatuen Bazkuna eta guzti hori egia bihur dadin baliabideak ere jartzea erabaki du. Aurrerantzean, bada, oinordeko deklarazioak, erreklamazioak, banaketa, dibortzio eta umeordetza prozedurak, ezgaitasun deklarazioak, zigor prozedurak, ke administrazioaren aurkako auziak etab luzea euskaraz egin nahi dituenak Bizka Abokatuen Bazkunaren tfno. honetara jo dezake: (94) 423 92 12.



✓ Kontutan hartzeko

- **V. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria.** Andoaingo Udalak antolatua, prentsa idatzian euskaraz argitaratutako lanek dute esku hartzeko aukera. Erabakia uztailaren 10ean emango da ezagutzera sari banaketan.
- **Eusko Ikaskuntzaren XII Kongresua.** Euskal ikaskuntzak hezkuntza

sarean izango da kongresu honetako gai nagusia. Eusko Ikaskuntzaren 75. urteurrena den honetan, azaroaren 29tik abenduaren 3ra izango da, Gasteizen.

- **Fifth international Conference on Minority Languages.** Galesko Unibertsitateak eraturik, Cardiff-en izango da, uztailaren 5etik 9ra bitartean.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZAREN IDAZKARITZA
HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

SECRETARIA DE LA PRESIDENCIA
SECRETARIA GENERAL DE POLITICA LINGÜISTICA